

GABRIEL MANTEROLA URIGOITIA (1890-1977)

Gabriel Manterola Urigoitia abadea Euskaltzaindiko lehenengo urgazleetako bat genduan, 1919.urtean gure erakunde honen sorrera inguruan izendatua. Honegatik, urreztaietan, 1968an, euskaltzain ohorezkora igoa.

Arratiako Zeanurin jaio zan 1890.urteko martxoaren 18 an eta herri berean hil zan 1977ko uztailaren 6an.

Ume nintzala ezagutu neban Eibarren; 1914tik 1937ra arte bertako abade izan zanez. Gizon jatorra eta alaia zan, herri guztia lagun ebana. Gogoratzen naiz jakitun entzutea eukala eta orduko sozialisten zuzendariegaz hartuemon onez berba egiten ebala. Gure umetzaroan, don Gabrielelek eta No-txe abadiak, gorrien adiskide izatearen fama zeroien. Don Gabrielen liberaltasuna argi azaldu eban P. Zelaiak "Eibar" aldizkarian eskaini eutsan artikulu haretan (ikus "Eibar", 130 zenbakia, 1971. urteko otsailekoaren 12.orrialdean).

Gerratean herbesteratu zan. Eta hamar urteren buruan berrido itzuli zan eta geroztik bere jaioterrian igaro zituan azken urteak.

Buruz, gizon azkarra zan. Beralako bategandik, laga euskuzen idaz-lanak baino gehiago espero geinkezan, horretarako ahalmena eukanez; baina sorkundezko literaturan eta saiaeran ez eban askorik emon. Hala be, ez uste antzu gelditu zanik. 1916rako hasi zan euskaraz idazten. Urte horretatik 1931.era arte "Jaungoiko-zale" aldizkariaren zenbaki guztietan bi edo hiru lan argitaratzen ebazan. "Ekin" en ostera, lau urte t'erdian, astero astero hiru edo lau lan, eta horrez gainera, "Yakintza", "Zeruko Argia", "Redención", "Vida Vasca"

aldizkarietan be idatzi eban. Inoz bigarren deituraz izenpe-tzen eban, Urigoiti, eta sarri erabili ebazan izenordeak ziran Gama, Mitirga, eta abar.

Honako liburuen egile genduan: *Goi-izpiak* (1921) eta *Santuen bizitza laburrak* (1925). Horrez gainera, Schmid-en ipuinak itzuli ebazan, *Ipuintxoak* (1929) izenburuz liburutxo batean argitaratuak.

Hizlari be ibilia zan eta Euskaltzaindiak eratutako "Le-nengo Euskalegunetako Itzaldiak" (1921) Durangon ospatu ziranean *Itzaldi bat* agertu eban, durangar seme ospetsuak eta euren lanak eta egintzak azalduaz, albiste asko agertuaz. Baita be, Euskaltzaindiak Txomin Agirre-ren gorazarrez era-tu eban ospaketa haretan parte hartuaz, *Agirre euskaltzale* (Yakintza, 1934) zeritzon hitzaldiz.

Bestalde, gotzaien idazkiak bizkaieraz ipinten lan asko egin eban, lehenengo Mateo Mujika zanagaz eta gero Morcillo zanaren lehen partekoegaz. Dotrinak bizkaieratzen be lan egin eban.

Berrogei irudidun antzerki erako agerpenak *Yesu-Kristoren Nekaldia* zeritzana eta *Gabonetako Antzerti Yaun-koya*. Bigarren hau Bilboko Coliseo Albia-n aurkeztua izan zan.

Frantsezetik eta inglesetik gaztelerara erlijiozko gaiez zenbait lan itzuli ebazan. Bere azken urteetan *The Official Handbook of the Legion of Mary* euskeratu eban, baina ez dakit inon argitaratzerik izan eban.

Hain gizon apal eta zintzoa zan Gabriel, Goian bego.

J. S. M.